

# XaguArtea

2010eko abuztuaren 23a

Xagun aldizkaria

**BEREZIA**

## Andramari festak 2010



Zeraingo gazteok Idiazabalgoen aurka egin genuen herri-kirol norgehiagoka, eta gutxigatik xaguak axariei gailendu!



Aurtengo nobedadea herritarren pilota txapelketa izan da.



Herriko artzainek egindako gazta ere nobedadea aurtan.



Gibel jatearekin motorrak berotu genituen aurten ere.



Puzgarriak eta rokodromoa umeen gozagarri izan ziren.



Umeen jaialdiak une benetan dotoreak uzten ditu.



Pregoilari berriak izan ditugu aurten: bertsolari gazteak.



Eguraldi freskoa izan arren, bururik altxa gabe aritu behar izan zuten lanean txekor pintxoak prestatzen. Giro ederra benetan!



**Joxe Mari eta Kontxita dantza txapelketan lehen herritarrak. Bejondeizuela!**



**Sarriegi eta Sarasola garaile aurten ere.**



**Andramari eguerdian, txakolinak eta pintxoek alaitzen dute bazkالاurea. Berriketarako tarterik ez da falta.**



**Andramari eta San Roke bola txapelketek bolari asko erakarri zuten Zeraingo bolatoki berritura.**



**Herritarren artean, Eneko nagusi pilotan Asierren kontra.**



**Triki-poteoa asto-triki-poteo bihurtu da azken urteotan.**



Dantza-soka San Roke eguerdian egin zutenek gerorako argazkia utzi zuten.



Korri-korri, Harrapatuko hau eta!



Saiatu behintzat, gogor saiatzen dira dantza-sokan!



Lainoen mehatxurik gabe, plazan egin genuen herri-afaria.



Herritarrak elkartzeko eta tertuliarako, lagun ona da gazta.



San Roke arratsaldean pilota partidak izan ziren.